

Alfabeto grekoaren letren euskarazko izenak arautu ditu Euskaltzaindiak



Jakina da alfabeto grekoaren letrak —letra guztiak— zientzian eta teknologian ere erruz erabiltzen direla (fisikan, kimikan, biokimikan, astronomian, ingeniaritzan...). Hiztegi Batuan ere, alfabeto grekoaren **pi** eta **omega** letrak agertzen dira orain, baina gainerakoak ez dira oraindik sartu. Hala ere, Euskaltzaindiak alfabeto grekoaren letra guztien izenak arautu berri ditu.

Astroen izenak lantzean, Exonomastika batzordea ohartu zen alfabeto grekoaren letren izenak beharrezkoak zirela izarrak izendatzeko. Horregatik, izen horiek arautzea proposatu zuen, eta, Euskaltzaindiaren Osoko Batzarrak, joan den maiatzean, alde aurretik aztertu, oharrak egin eta eztabaidatu ondoren, izen-zerrenda onartu zuen.

Laster argitaratuko da astroen izenen araua, eta, han, eranskin gisa agertuko dira. Hurrengo fase batean, Hiztegi Batura pasatuko dira.

Letra batzuen izenak berdin idazten dira gure inguruko erdaretan, eta ez dute arazorik sortzen, hala nola **delta**, **pi** edo **sigma**. Beste batzuk, berriz, ez dira berdin idazten. Adibidez, ζ letraren izena **dseda** idazten da gaztelaniaz, **zêta/dzèta** frantsesez eta **zeta** ingelesez; χ letra **chi** idazten da ingelesez, **khi** frantsesez eta **ji** gaztelaniaz; υ letra **upsilon** da frantsesez eta **ípsilon** da gaztelaniaz...

Euskaraz idazteko eta esateko orduan zalantzarik ez egiteko, zerrenda arautu du Euskaltzaindiak, behar denean erabil dadin.

Alfabeto grekoaren letrak eta letren izenak

larria	xehea	grekoa	euskara	gaztelania	frantsesa	ingeleza
A	α	Άλφα	alfa	alfa	alpha	alpha
B	β	Β βήτα	beta	beta	bêta	beta
Γ	γ	Γάμμα	gamma	gamma	gamma	gamma
Δ	δ	Δέλτα	delta	delta	delta	delta
<i>E</i>	ε	Έψιλον	epsilon	épsilon	epsilon	epsilon
Z	ζ	Ζήτα	zeta	dseda	zêta/dzêta	zeta
H	η	Ήτα	eta	eta	êta	eta
Θ	θ	θήτα	teta	zeta	thêta	theta
I	ι	Ιώτα	iota	iota	iota	iota
K	κ	Κάππα	kappa	kappa	kappa	kappa
L	λ	Λάμβδα	lambda	lambda	lambda	lambda
M	μ	Μι	mu¹	mi	mu	mu
N	ν	Νι	nu¹	ni	nu	nu
Ξ	ξ	Ξι	xi²	xi	xi	xi
O	ο	Όμικρον	omikron	ómicron	omicron	omicron
Π	π	ω Πι	pi	pi	pi	pi
P	ρ	Ρω	ro	ro	rhô	rho
Σ	σ, ς	Σίγμα	sigma	sigma	sigma	sigma
T	τ	Ταυ	tau	tau	tau	tau
Υ	υ	Ύψιλον	upsilon¹	ípsilon	upsilon	upsilon
Φ	φ	Φι	fi³	fi	phi	phi
X	χ	Χι	khi⁴	ji	khi	chi
Ψ	ψ	Ψι	psi	psi	psi	psi
Ω	ω	Ωμέγα	omega	omega	oméga	omega

Xabier Kintana eta Alfontso Mujika

¹ Ahoskera: [y] ere ahoska daiteke (zubererazko *ũ* bezala).

² Ahoskera: [ksi] (*taxi*, *oxido* edo *axioma* hitzetako *-xi-* silaba ahoskatu ohi den moduan, eta ez [ji], *xingola*, *lixiba* edo *xinaurri* hitzetako *-xi-* silaba ahoskatzen den moduan).

³ Greziera klasikoan, p hasperedun gisa ahoskatzen zen [p^h], Ipar Euskal Herriko zenbait tokitan *epher* ahoskatzen den bezala.

⁴ Ahoskera: [x] (gaztelaniazko *ji* bezala, edo Hegoaldean *ijito* ahoskatu ohi den bezala).